

URTEKO MEMORIA 2021



La★Salle

Toki xume askotan jende xume askok gauza xume asko eginez, mundua alda dezake

AURKIBIDEA

1. PATRONATU JUNTA	3
2. KUDEAKETA TALDEA	4
3. DELEGATUAK	5
4. URTEKO KANPAINA	6
5. KUDEAKETA TALDEAREN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	8
6. ORDEZKARITZEN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	11
7. TANDANACUI	34
8. UDAKO BOLUNTARIOTZA	35
- HELDUAK	
- JENDE XUMEA	
9. PROIEKTUAK	39
10. MEMORIA EKONOMIKOA	47
11. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA	49
12. ERAGIN POLITIKOA	50
13. HARREMANAK	51
14. PUBLIKAZIOAK	52
- SUSTATU	
- GABONETAKO POSTALAK	

1 PATRONATU JUNTA

Bilerak



Patronatu Junta 2021 urtean pertsona hauek osatu dute:

- Jose Roman Perez Conde, Presidente
- Francisco Javier Lorenzo Campo, Presidenteorde
- Fernando Casas Gallego, Diruzain
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola, Batzordekide
- Itziar Muniozguren, Batzordekide
- Ana Maria Ruiz, Batzordekide

2021eko abenduaren 9ko Juntan aldaketa bat suertatu da: Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola baja izan da eta bere ordez Maite Pardina Larrarte izan da batzordekide izendatua.

Urtean zehar Juntak lau bilera egin ditu Proegaren Egoitzan. Landutako gai garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

-Martxoaren 24ko bileran: 2020ko diru-kontuen baiespena. “Urteko Sentsibilizazio-kanpaina”ren baiespena. “Fratelli/Libano Proiektu Hitzarmena”ren berriztapena. 2021 udako nazioarteko boluntariora proiektuen egoera.

-Ekainaren 22ko bileran: 2020-2021 ikasturteko Planaren ebaluazioa. “Genero berdintasuna” gaia Juntaren osaketan, Memoria 2020 eta Sustatu 26ren aurkezpena. 2021-2022 ikasturteko bileren egutegia.

-Irailaren 24ko bileran: 2021 urtarrila-abuztuko kontuen aurkezpena. 2021-2022ko Urteko Planaren aurkezpena. 2021eko udako “Jende Xumea” Auzo Lanen informazioa. Bilbon eta Zarautzen Proyde-Proegaren Ordezkaritzak irekitzeari buruzko informazioa.

-Abenduaren 9ko bileran: 2022ko aurrekontuaren baiespena. Patronatu Juntan aldaketak. 2022ko nazioarteko proiektuei buruzko informazioa. Lankidetzaren Proiektuen egoera 2021aren amaieran.

2 KUDEAKETA TALDEA

Bilerak

Kudeaketa Taldea 2021 urtean pertsona hauek osatu dute:

- Francisco Javier Lorenzo Campo, Zuzendari
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Laida Pino Gomez, Teknikari
- Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola, Boluntario

Taldea normalean hamabostero biltzen da hausnarketak egin eta elkarren lana antolatzeko eta koordinatzeko.



3 DELEGATUAK

Bilerak

Delegatuen bilerak hiru aldiz egin ziren urtean. Lehenengo biak bideokonferentziaz, pandemiaren eraginez, eta hirugarrena ohiko eran: Proegaren Egoitzan elkartu ziren Gipuzkoako Delegatuak eta Bizkaikoek bideokonferentziaz parte hartu zuten. Proegako Kudeaketa taldetik Jose Mari Calvo eta Jose Manuel Agirrezabalagak hiru bileretan parte hartu zuten eta Idoia Azpilicuetak lehenengoan eta beste bietan Laida Pino Gomezek. Hara aztertutako gai garrantzitsuenak:

-Urtarrilaren 25eko bileran: Proegaren Urteko Planean Ordezkaritzei dagokienaren analisia egin genuen eta zenbait informazio eman: Bidezko Merkataritzari buruz Mikel Agirrek informatu zuen: momentu honetako zailtasunak, ziurtagirien berriztapenak...; Ikastetxeetako Zuzendariei Proega aurkezteko prestatuko diren materialen berri eman zen; 2020 jasotako diru-laguntzen informazioa ere.

-Apirilaren 26ko bileran Proegaren kudeaketa-taldearen berri eman zen, alegia, Idoia Azpilicuetak behinbetiko baja eman ondoren, Laida Pinok hartu duela Lankidetzarako Teknikoari dagokion lanpostua eta zeregina martxoaren bukaeratik. Bidezko Merkataritzari buruz informatu zuen berriro Mikel Agirrek. Proegaren Delegatuen zereginak aztertu ziren eta sentsibilizazio kanpainetako kriterioak ere bai. Kudeaketa taldekideen eta tokian tokiko Delegatuaren arteko topaketen plana azaldu zen.

-Urriaren 10eko bileran: Urteko Plana aztertu eta azpimarratzeak egin genituen: Ordezkaritzei dagozkienak, alde batetik, eta Kudeaketa Taldeari dagozkionak, bestetik. Ikasturteko sentsibilizazio kanpainako materialak komentatu ziren, paperean argitaratutakoak eta Drive-n daudenak ere. Gabonetarako prestatu diren postalen berri ere eman zen eta atxikita joango zaien Txad-eko proiektu erantsiari buruz ere.

4

URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Urtero, Proyde-Proegak sentsibilizazio kanpaina bat sustatzen du. Kanpainako orientabide eta materialak “Arlepeko Salletar GGKEen koordinakundearen” (Proyde, Proyde-Proega, Proide, Edificando eta Proideba), La Salle Solidarità Internazionale Onlus, eta Sed (Maristak), Proclade-Yanapay eta Proclade Fundazioa (Klaretarrak) GGKEen arteko Prestaketa Taldeak eginak dira. Kanpaina hau tokian tokiko Ordezkaritzetan egiten da, Euskadiko Salletar ikastetxe eta zentroetan txertaturik dauden Ordezkaritzetan, alegia.

Hauek dira gure giza multzoari, ikastetxe eta hezkuntza erakundeetako ikasle eta erabiltzaileen kopuruari, buruzko datuak :

IKASTETXEAK	UDALERRIAK	IKASLE KOPURUAK
La Salle Berrozpe	Andoain	1211
La Salle	Beasain	660
La Salle	Bilbo	1309
La Salle	Donostia	928
La Salle San Luis	Donostia	331
La Salle Isasi	Eibar	493
Azitaingo Ama	Eibar	323
Irungo La Salle	Irun	1280
Begoñako Andra Mari	Sestao	702
La Salle San Jose	Zarautz	645
La Salle Legazpi	Zumarraga	528
IKASLEAK GUZTIRA		8410
SOZIO-HEKUNTZAZKO OBRAK	UDALERRIAK	ERABILTZAILEAK
Elkarbanatuz	Bilbo	1727
Artizar	Sestao	86
EGOITZAK		
La Salle Egoitza Unibertsitarioa	Donostia	72
ERABILTZAILEAK GUZTIRA		1885
GUZTIRA		10295



4 URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Kanpainan, ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta salletar elkarteekin erabiltzen ditugu Prestaketa Talde horrek egindako material didaktikoak. Proegak euskarara itzultzen ditu eta egokitzen material horiek.

Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: “Oinarriak landatu ditzagun, etorkizuna erein dezagun”.

Kanpaina Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) hauen inguruan izan da:



NEURRI URGENTEAK
HARTZEA KLIMA-
ALDAKETAREN ETA HAREN
ONDORIOEN AURKA
EGITEKO.



ENERGIA ESKURAGARRIA,
FIDAGARRIA, IRAUNKORRA ETA
MODERNOA BERMATZEA
GUZTIONTZAT.



Bi helburu horien artean harreman nabarmenak daude: berotegi-efektuko emisioek eragindako klima-larrialdia geldiarazteko, energia garbi eta berriztagarrien aldeko apustua egin behar dugu. Horrela, planeta zaintzeko eta biziera guztiak, baita gizakiak ere, erabat garatzeko eszenatoki egokia lortuko dugu.

Gure erakundeentzat oso garrantzitsua da gure planetak aurrean dituen bi arazo larrienetakoei amaiera ematea: klima-aldaketari eta erregai fosilak neurri gabe erretzeari, oso kutsatzaileak baitira eta agortzera kondenatuta baitaude.

5 KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

PROYDE-PROEGA

- LaGaleria irratsaioan Bidezko Merkataritzaren Aldeko ikastetxeen inguruko iritzi artikulua elkarbanatu genuen maiatzaren 5ean.
- Urriaren 23an Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Zarauzko VII. azoka ospatu genuen. Bidezko Merkataritza postuarekin egon ginen Zarauzko La Sallekin batera.



- Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna, abenduaren 2an ospatu genuen Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Kooperazio zerbitzuak herrian eta munduan zehar laguntzen dituen elkartasun lanak ezagutzera emanez. Ekitaldia udalbatzar aretoan ospatu zen. Bertan egon ginen Zarauzko La Sallerekin gure aurtengo proiektua aurkezten beste GGKEekin batera.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

DONOSTIAKO BIDEZKO MERKATARITZA TALDEA

● Colorful Friday ekintza ospatu genuen azaroaren 26ean, aurten pandemia dela eta online egin genuen aldarrikapena. Zer eta noiz erosi (edo ez erosi) erabakitzeko beste modu batzuk aurkitzera gonbidatuz.



● Bidezko Merkataritzako Nazioarteko Eguna ospatu genuen maiatzaren 10ean Donostiako Bidezko Merkataritzako taldearekin batera. Mikroantzerki eta kafe dastaketa antolatu genuen taldekideen artean. Jende asko hurbildu zen eta balorazio positiboa egiten dugu.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

POBREZIA 0

Pobreziaren aurkako nazioarteko egunaren (urriaren 17a) inguruko egun hauetan, Pobrezia 0 plataforman parte hartzen dugun GGKEEK pobrezia desagerrarazteko bideratutako hainbat jarduerekin osatutako aste bat antolatu genuen:

- Lehenik eta behin, urriaren 13an hasiera eman genion prentsaurreko batekin. Hegoalde globaleko herrialde pobretuetan pandemia dela eta txertaketarako dagoen aukera azaltzeko eta datu ezberdinak jendarteari helarazteko.

- Ostiralean, hilak 15, gerrilla kanpaina bat egin genuen, Donostiako gune jendetsuenetan hainbat kartel itsatsiz eta bankuetan aldarrikapen kartel batzuk jarriz, “Nigerian biz bazara eta txertatu nahi baduzu, eserita itxaron” bezalako mezuekin.

- 17an bertan, 60 lagun ingururekin Bizimartxa bat antolatu genuen, Haizeen Orrazian hasi, Grosetik pasa eta Boulevardeko plazan eserialdi batekin amaitu genuelarik.

- Aste honi amaiera emateko, hilaren 19an zinema-saio bat izan genuen, Kresalan, Bosniako osasun-sistema irudikatzen duen film bat ikusteko, pobretutako beste herrialde askoren egoeraren isla eta gure errealitatetik oso urrun dagoena.



6

ORDEZKARITZEN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak



ANDOAIN

La Salle Berrozpe

PROEGAk bultzatutako ekintza hauek aurrera eramán dira ikastetxean, une ezberdinetan.

Lehena azaroan egin zen. PROEGAk eta beste GGKE batzuek proposaturiko eskola jarduerak aurrera eramanez. Gaia Nazio Batuek jarritako Garapen Jasangarri Helburuetatik laugarrena: Kalitatezko Hezkuntza.

Bigarrena, **Gabonetako Postalak**, 175 eskatu dira, Ikastetxeak berak zoriontzeko erabili dira.

Otsailaren 22tik martxoaren 5era jarri zen martxan urteroko kanpaina **TOGO** iparraldeko eskoletarako laguntza jasotzeko. 20.404€ jasotzea lortu da, inoiz baino gehiago.

BOLUNTARIOTZA. TANDANACUI eta JENDE XUMEA TALDEAK

Nahiz eta Ikastetxean horrelako talderik ez izan, boluntariotza suspertzea hamasei urtetik gorako ikasleen artean oinarritzko helburua dugu. Kirol begirale edo aisialdi begirale izateko eskaintzaz aparte Andoaingo CARITASEk bultzatutako ekintza batean parte hartzeko aukera ematen zaie ikasleei. Horietako asko oso mugatuak egon dira COVIDen eraginez. Ikasturte berriarekin berriro abian denez ikasle batzuk euren burua eskaini dute laguntzeko.

BESTE EKINTZAK



Martxan jarraitzen du urtero legez tapoi bilketa SEUR Fundazioarekin batera. Ikasturte berriarekin Lanbide Heziketako talde batek berea egin du proiektua, herrira ere zabaldu nahirik.



URATARRILAREN 23a arte

Urtarrilaren hasieran posible izan zen Andoaingo Udalak eta Hurria Sahara elkarteak bultzatutako "Piztu itxaropena" Sahararen aldeko karabanan parte hartzeko gonbidapenarekin bat egitea.

ANDOAIN

La Salle Berrozpe

Abenduan Gabonetako **janari bilketa** egin ohi izan dugu herriko CARITASen alde. Aurten posible izan da hori berreskuratzea.

Horri, aurten, beste bi kanpainetan parte hartzeko deia gehitu zaio: “Ume 1 jostailu bat” eta “Poztailu” izenekoak.



Pandemiak **Gipuzkoako Odol Emaileekin** lan gehiago egiteko aukera eman digu. Urtero bezala, otsailean lehen aldiz odola emateko aukera eduki zuten ikastetxeko kideak. Hamazortzi urte bete berri dituzten ikasleei zuzentzen zaie deia bereziki, baina adin horretatik gorako pertsonek (ikasleak, ikastetxeko langileak ...) har dezakete parte. 37 pertsona baliatu zen aukeraz, joan den urtean baino 10 gehiago.

Azkenik, bi gauza azpimarratu nahiko genituzke:

Memoria honetan azaldu diren ekintzak COVID 19ak eragindako pandemiaren eragina pairatu dutela, egin zitezkeen zenbait ekintza ezinezko bilakatu baitira.

Ikasleekin harreman zuzenak berebiziko eragina du, bereziki haien sentiberatzean edota haien izaera solidarioaren hezieran. Ikastetxeak badu beste tresna baliagarri bat guztion informaziorako eta gogoeta-eragile dena, BULETINA hain zuzen ere. Astero bidaltzen zaie familia guztiei eta ikastetxeko langile guztiei, web orrian jartzen den era berean.

BEASAIN

La Salle

Beasaingo Udaletxeko Lankidetzak sailak duen plataforman parte hartzen da Boluntario-Eguna prestatzeko orduan.

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Proyde-Proega kanpaina 2021eko martxoaren 8tik 12ra egin da. Ikasleekin eta gurasoekin egin diren jarduerak hauek izan dira:

- Ikasgai ezberdinetan aurtengo lema landu da, triptiko eta kartelaren laguntzaz.
- Eguneroko gaiari buruzko Goizeko Gogoeta egin da.
- Astean zehar Togoko proiektua sustatzeko diru laguntza antolatu da. Aurten 3.284,83 € bildu dira. Togoko bideo ikusi ahal izan dute ikasleek.
- Urtero egin ohi den “Bizkotxo solidarioa” ezin izan zen egin pandemia dela eta.

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Ondorengo Erakundeekin harremanetan jarri dira: Arangoiti zaharren egoitza, Gautena, ONCE, KEMEN Elbarrituen Kirol Elkarteak, ASPANOGI, Atzegi, Txolarte programa, ATERPE, Caritaseko nekazaritza tailerra.

Ekintza sinbolikoa on line egin zen: “Esperientziak zintzilikatuz” erabili genuen lema bezala.

GABONETAKO KANPAINA

Gabon postalak saldu dira.

BIDEZKO MERKATARITZA

Bi momentutan jarri dira produktuak salgai irakasleentzat: Gabonetan eta Aste Santuan. Bietan arrakasta handia izan du, produktu guztiak saldu dira. Produktuen salmenta ezin izan da familiei edo ikasleei zabaldu, COVIDa dela eta ekintza gehienak bertan behera gelditu direlako.



BILBO

La Salle

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Urtarrilaren azkenengo astean (25-29) Proyde-Proegaren “Hezkuntza gure tresna” kanpaina egin genuen ikastetxean. Egunero goizeko otoitz batekin hasi, eta arlo batzuetan ere ekintza bereziak egin ziren, adinaren arabera (Kanpainako zikloko arduradunek prestatutako materialen artean batzuk aukeratu ondoren). Aste horretan zehar urteko proiektua aurkeztu zen eta familiei diru-laguntza emateko gutunazala bidali genien.

Osasun egoera zela eta ezin izan genuen familiekin ekintzarik antolatu, bertan behera utzi behar izan genituen aurreko urteetan egindako jarduerak: jostailu-bilketa eta txokolatada solidarioa. Gabonetako Postalekin 3.706 € lortu genituen.

BIDEZKO MERKATARITZA

Urtean zehar irakasleek Proegako webgunean bidezko merkataritzako produktuak erosi genituen. Gure artean produktu hauen erosketa egiteko ohitura hartu dugu, eta gero eta jende gehiago animatzen da bidezko merkataritzako produktuak erostera.

AZOKA SOLIDARIOA

Urtarrilean Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleek ITB “Mila gustoz” proiektuaren barne bidezko merkataritzako azalpenak jaso ostean, euren bidezko merkataritzako produktuak prestatu zituzten eta azoka solidario bat antolatu zuten proiektuaren itxierarako. Bere produktu guztiak saldu zituzten.




BILBO

La Salle

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Urtero bezala, Bakearen kanpaina ospatu genuen urtarrilaren azken astean eta geletan ekintza bereziak antolatu ziren. Aurten ezin izan ginen familiekin elkartu kiroldegian, baina urtarrilaren 29an gogoeta berezi bat prestatu genuen geletan eta bakearen aldeko otoitza egin genuen, geletan ere.

Horrez gain, kurtsoan noizean behin maila askotan justizia esperientzia bat antolatzen da. Adibidez, Batxilergoan zerbitzu solidario ezberdinetan ibili dira hainbat ikasle, bai ikastetxean, bai kanpoko ekintzetan.



TANDANACUI

Tandanacui talde bat abian jarri zen 2021. urtearen hasieran. 30 gazte inguru 2 begiraleekin, ikasle-ohiak direnak, bi astero gutxi gora-behera elkartzen dira pobrezia, justizia, bakea eta abar sentsibilizazio jarduerak aurrera eramateko. Proega Delegazioarekin kolaboratzeko aukera eman genien ekintzak aurrera eramateko. Osasun egoerak hobetzen badu, 2022an azoka solidarioan, txokolatada solidarioa eta bizikletadan solidarioan parte hartuko dute boluntario bezala.



BILBO

La Salle

ATHLETIC ELASTIKOAREN ZOZKETA SOLIDARIOA

Martxoan, Athletic bi final jolastekotan zegoenez, ideia ona iruditu zitzaigun elastiko zurigorri bat zozkatzea finalen aurretik. Athletic-ek elastiko bat oparitu zigun eta 1.300 inguru txartel prestatu genituen zozketarako. Zirkular baten bidez eta gure sare sozialetan familiak eta ikasleak informatu genituen eta txartelak geletan saldu genituen. Azkenean, guztiak saldu ostean, 1325 euro batu genituen eta gure irabazleak poz-pozik elastikoa jaso zuen.



GABONETAKO ZOZKETA SOLIDARIOA

Aurten abenduan hiru saski solidario prestatu ditugu Proegako bidezko merkataritzako Gabonetako produktuekin. 900 txartel saldu ostean, 784 € batu ditugu Txad-eko proiekturako.



BILBO

La Salle

GABONETAKO KANPAINA

Urtero bezala, abenduan, Proegako postalak saldu genituen gure ikasle eta irakasleen artean harrera oso ona eduki zuen. 776 postal saldu ditugu aurten.

ELIKAGAIEN BANKUA

Abendualdian 5. mailako ikasleek proiektu bat egin zuten ("ILUSIO KILO BAT"). Aurten biltzeko ziren: elikagaiak, arropa, jostailuak eta liburuak.

Ikasleek gure inguruan dauden pobrezia ezagutzeko ekintza batzuk garatu ondoren, Gabonetan familia guztietan janaria, arropa, jostailuak... izateko ekintzak antolatzen dituzte. Zirkular bat idazten dute familientzako, kartelak osatu, eta gelaz-gela pasatzen dira power point batez, proiektua azaltzen eta kolaborazioa eskatuz.

Goizero ekarritako janari, arropa eta jostailu kiloak bildu eta antolatu egiten dituzte, azken egunean parrokiara eramateko. Hor, apaizak elikagai-bankua erakutsi, bere funtzionamendua azaldu, eta parrokian Gabonetako meza egiten dugu gure kiloak eskainiz. Batxilergo eta DBHko ikasle eta irakasle batzuek ere parte hartu zuten Elikagaien Bankuan supermerkatuetan antolatzen duen elikagaien bilketa azaroaren bukaeran.



DONOSTIA

La Salle

GOIBURUA

Goiburua: “Eta zuk, zer aukeratzen duzu?” Balioa: Erantzukizuna.

Irailean, hainbat ekintza bideratu ditugu ikasturte hasierako tutoretza berezietan eta ikasturtean zehar ere. Egunerokoan sortzen zaizkigun erronketan norbanakoak hartzen duen papera garrantzitsua dela azpimarratu dugu.

BOKAZIO ASTEA

Erantzukizunaren baliotik tiraka, norbanako ororen balioa joratu dugu aste betez (urrian). “Naiz” aditza txertatu dugu kartelean, proposatutako dinamiken bitartez ikasleagoa bere dinamismo propioaz ohartarazteko.

GABONETAKO KANPAINA

Ospatzea da guztiaren muina: Jesus haurtxoaren apaltasun eta maitasun mezutik abiatuz, gure arteko harremanak eskertzea eta ospatzea.



DONOSTIA

La Salle

KILOPILA KANPAINA

Helburua 1000 elikagai jasotzea duen kanpaina da Gipuzkoako elikagaien bankura bidaltzeko. Familiek, ikasleen bitartez egin dute haien laguntza, klaseetara janaria ekarriz. Kanpaina honetan Antiguoko futbol taldeak antolatutako Eguberri txapelketako familiek ere parte hartu dute eta aurreko urteetako janari bilketa handitu egin da modu nabarian.



JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Bakearen Nazioarteko eguna barnean hartuz, aste honetan zehar Giza Eskubideak gogoratu ditugu eta egin diren sentsibilizazio ekintzak izan dira: hitzaldiak, tailerrak eta eskolako kide guztien arteko Bake Keinua urtarrilaren 29an.

PROEGA ASTEA

Solidaritzaren astea ere deituriko aste honetan zehar ardatza Proegak laguntzen duen proiektu baten aldeko diru bilketa da. 2021ean Togoko proiektu bat lagundu dugu diruz. Pandemiaren eragina nabaria izan da berriro ere eta ohiko ekintzak birpentsatzera bultzatu gaitu egoerak. Edozein kasutan, emaitzarekin pozik gelditu gara eta ekintza dexente bideratu ditugu, emaitza ekonomikoa 10.600€ izan delarik, ohikoetatik hurbil.



DONOSTIA

La Salle

GARIZUMA

Udaberriarekin batera natura berpizten da! Eta bere laguntzaz, proposamen positiboak hartu ditugu kontuan guk ere, egunez egun. Garizumako ibilbidea egin dugu horrela.



LA SALLE ASTEA

San Juan Bautista fundatzailea ardatzean jarriz, eskola jai giroan murgiltzen da aste betez. Jolasak, dantzak, abestiak... baita elizkizunak eta otoitzak ere, berak egiten zuen antzera, barrua sendotuz barrutik ospatzeko bizitza



DONOSTIA

La Salle San Luis

PROYDE-PROEGA KANPAINA

2021an martxoaren 8-12 bitartean egin genuen Proyde-Proega kanpaina. Familiei gutuna helarazi genien urte horretako diru bilketa zertarako den azalduz. Horrez gain, Proega astearen aurreko ostegunean (martxoak 4) hamaiketako eta merienda solidarioa antolatu genituen. Covid egoera dela eta, 2021ean ez zen azoka solidariorik egin.



TANDANACUI

Tandanacui talde bat dugu martxan DBH 1, 2, 3 eta 4ko ikasleekin (15-20 pertsona inguru). 2021ko kurtso hasieran jende gehiago animatu da. Hilabetean behin elkartzea zen gure asmoa, baina Covid-aren ondorioz gorabehera handiak egon dira eta 2021ean gutxiago elkartu gara. Kurtso osoan 6 aldiz.



Kanpaina ezberdinetako materialak landu izan ditugu eta eskolako toki ezberdinetan jartzeko kartelak prestatu; geletatik pasa izan dira kanpainako aste bereziak aurkeztera; azoka solidarioa jartzen denean bertan egoten dira eta bertarako pultsera edo bestelako gauzak egiten dituzte. Urtero San Asensioko gazteen topaketara joan ohi dira eta 2021an nahiko talde handia izanik, joan ez izanaren penarekin geratu ziren.

BESTE EKINTZAK

2021ean behin bakarrik jarri genuen bidezko merkataritza. Justizia eta bakearen astean eskolarako ekintza dinamizatu genuen.

EIBAR

La Salle

BAKEAREN JAIALDIA

Ikasgela bakoitzak keinu edo sinbolo bat prestatu zuen eta grabatu. Urtarrilaren 29an ikasle guztiek ikusi ahal izan zuten prestatutako bideoa.

PROEGAREN ASTEA eta EGUNA

Pandemiak eragindako zailtasunak zailtasun martxoan aurrera egin genituen.

Aurten ere sentsibilizazio proiektuzat Eibarko Udalari esker Argentinan aurrera doan Malvinas Argentinasko Bigarren Hezkuntzako Zentroaren eraikina bukatzea izan da. Oso lagungarri izan genituen handik jasotako argazkiak. Eibarko Udalaren diru-laguntza 80.000 eurokoa izan da.

Covid-19gatik ezin izan genituen egin jolas solidarioak Azitainen ezta jaialdi solidarioa ere Isasin. Hala ere, osasun-neurri egokiak hartuz egin genuen Proega Eguna eta bidezko merkataritzako produktuak saldu eta Jende Xumea elastikoak ere.

Sentsibilizazio gisa baloiak egiteko tailerrak egin genituen. Horrela ikasleak konturatu ziren Hirugarren Munduan era honetako lanetan hurrek jasaten duten esplotazioa mendebaleko kontsumismoaren mesedetan.



EIBAR

La Salle

TANDANACUI

2021-2022 ikasturte berriaren hasieran, irailean, ikastetxeetarako Covid-19ren protokolo berria zela-eta abian jarri ziren berriro Tandanacui taldeak euren bilerekin eta sentsibilizazio-proiektuekin. Erantzuna oso ona izan zen: DBHko 15 ikaslek eman zuten izena eta Batxilergoko 27k.

JENDE XUMEA

Eibar eta Zarauzko gaztez osatua. Pandemiagatik Boliviako proiektu batera ezin joan eta auzolanean jardun ziren abuztuko lehenengo hamabostaldian Granadako auzo batean, sozio-hezkuntzazko proiektu batean. Bizi izan zuten esperientziaz oso pozik itzuli ziren.



EIBAR

La Salle

BESTE EKINTZAK

- Urriaren 17an Pobrezia eraztearen Nazioarteko eguna zela-eta hausnarketa egin genuen ikasleekin tutoretza-unean zein erlijio-klaseetan Garapen Iraunkorreko Helburuei buruz. Nahiz eta patioan sentsibilizazio-jarduerarik ezin egin ikasgelako ekitaldiak ordezko onak izan dira.
- Urriaren 23an, Egoaizia GGKEak Garapen Jasangarri eta Kontsumo Arduratsuaren Azoka antolatu zuen Eibarren. Tandanacui taldeko zenbait kidek parte hartu zuen bertan biziera alternatibo eredu bat sustatzen duten eskaintzak eta ekimenak ezagutuz.
- Azaroaren 19an, Tandanacuiko talde handi batek parte hartu zuen Eibarko Mercadonako Urteko Bilketa Handian, Elikagaien Bankuak antolatua. Partehartzaileentzat esperientzia esanguratsua izan zen.
- Azaroaren 25ean, Haurren Eskubideen Konbentzioa eguna zela-eta, Tandanacui taldeak Pastoral Departamentuarekin batera ikastetxeko korridoreetan propaganda-materiala jarri zuen eta sentsibilizazio ekitaldiak antolatu erlijio klasetarako.
- Azarotik urtea bukatu arte Gurutze Gorriarekiko lankidetzan ere jardun gara. Gabonetako jostailuen banaketan; bizkotxo solidarioen salmenta ezin abian jarri eta Tandanacuiko kide batek Gurutze Gorriko kanpainaren harira egindako pegatinen salmenta egin dugu. Horretarako ikasgelaz ikasgela pasa ziren ikaskideei parte hartzera gonbidatuz. Abenduaren 22an, Eibarko Udaletxean, kanpainaren bukaerako ekitaldi batean, eta SER kateak emandako irrati-saio batean, Tandanacuiko talde batek Gurutz Gorriko arduradunen eskutan jarri zuen jasotako dirua.



IRUN

La Salle

PROYDE-PROEGA KANPAINA

(2021-03-15/2021-03-26) klaseetan lantzeko materiala erabili da eta lehen aldiz bidezko merkataritza sustatzeko saiakera ere egin da lote ezberdinen bidez. Klasean haur hezkuntzako ikasleetatik hasi eta lanbide heziketako ikasleetaraino landu dira, bakoitzak bere moduan, Proegaren eta Togoko kanpainaren inguruko materialak. Pandemia egoerari erantzuteko asmoz eta urteroko bazkari solidarioa egiterik ez genuenez, bidezko merkataritzako produktuz osatutako 2 lote prestatu genituen, tiketak saldu eta hauen banaketa egin genuen.

EROSI BIDEZKO MERKATARITZA

Agortu arte eskuragarri!

1. LOTEA

- TYROLATEZKO 2 GAJLETA
- LIMOI ETA EZKAI GUYONJAK
- PLATANO ETA MANGO HOKADUTXOAK

5€

2. LOTEA

- TYROLATE BARRA
- PASTA (FUSILLI) KINAREKIN
- TYROLATEZKO GAJLETA PAKETEAK

10€

+ INFO

NOLA EROSI ZURE TIRETA:
TUTOREEI GALDETU

NOIZ TASO ZURE LOTEA:
MARTXOAN 24

NON TASO ZURE LOTEA:
IDATZARITZA

La Salle

BAKEAREN ASTEA

(2021-01-25/2021-01-29) HH eta LHko ikasleek ikastetxean bertan ospatu zuten bakearen astea, azken ekintza nagusi bezala ikasle guztien eskuekin sortutako muralaren aurrean talde ezberdinek “Zazpi kolore” kantua abestu zuten.



Aurtengoan, egoera epidemiologikoa dela medio, ezinezkoa izan da aurreko urteetan bezala Irungo San Juan plazan bertako beste ikastetxeetako ikasleekin elkartzea.



IRUN

La Salle

KILO KANPAINA



(2021-12-11/2021-12-22)

Aurreko urteko esperientzia positiboari jarraipena emanaz, aurtan ere Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin elkarlanean antolatu dugu gure Kilo Kanpaina. Etapa bakoitzean kaxak banatu eta klaseka bildu ziren elikagaiak, azkenik, guztiak idazkaritzan elkartu eta abenduaren 23an etorri ziren bildutako guztia hartzera. Aurtengoan ere oso esperientzia positibo eta aberasgarria izan da.

TANDANACUI eta JENDE XUMEA

Oraindik ez ditugun arren, 2021eko maiatzean bigarren batxilergoa bukatutakoekin hitz egin eta etorkizunean talde txiki bat sortzeko aukera ikusi da.

BESTE EKINTZAK

- Bidezko merkataritzarekin lehen kontaktua izan ostean, positiboa ikusten dugu jarraikortasuna ematea aurtengoan ere (loteen salmentarekin), izan ere, pandemiaren ondorioz ez dugu bazkari solidarioa aurrera eramateko aukerarik ikusten. Aldiz, bidezko merkataritzako postu "finkoak" sortzeko garaian, zalantza asko daude oraindik eta zuzendaritza taldearekin gaia lantzeko asmoa dago.

- Janari bilketetan Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin bigarren urtez lan egin ondoren, parrokiarekin egiten zenarekin alderatuz askoz ere erosoagoa eta eraginkorragoa ikusten dugu, beraz, datorren urteetan ere beraiekin elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu.

- Bakearen planaren inguruan, 2021 urtean ere ezin izan genuen gainontzeko ikastetxeekin elkartu. Gurean ospatu dugun arren, interesgarria da gure ikasleak beste ikastetxeetako ikasleekin elkartzea helburua Bakea lantzea delarik, beraz, espero dugu datorren urterako egoera arintzea eta guztiak lehen egiten zen moduan, elkartu ahal izatea.

SESTAO

Begoñako Andra Mari

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Aurten kanpaina bi astetako izan da. Aste bat aurreko urtetan bezala bakearen astearekin batera egin da, urtarrilaren 25etik otsailaren 5a arte. Kanpainan Proyde-Proegak proposatutako jarduera eta gogoetak egin dira. Urtarrilaren 29an ospatu zen Indarkeri ezaren eta Bakearen Eskola-eguna: keinu ber-bera egin zen ikasgela guztietan, GIH 4ari dagokiona, Proegaren kanpainan landutakoa.



TANDANACUI

- 2020-21 ikasturtean modu xumeagoa jarraitu nahi izan zen, osasun egoera kontuan hartuz. Bilerak gutxi batzuk bakarrik egin ziren.
- 2021-22an berriro hasi nahian DBHko ikasleei deia egin zaie. Eta bilerak egin izan dira gaur eguneko zenbait gaiei buruz: genero-bortxakeria, boluntarioritza eta bidezko merkataritza, besteak beste. Ezin izan dute parte hartu bidezko merkataritzako produktuen salmentan, ez delako abian jarri pandemiagatik. Eta aurreko urtetako kide batzuek Izartxoko begirale laguntzaile izatera pasa dira, horrela boluntarioritza esperientzia bizituz.

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Justizia eta bakearen lotutako hainbat ekintza egin dira: emakumeen aurkako indarkeriaren egunean herriko kontzentrazioan parte hartzea eta haurren eskubideak aldarrikatzeko dinamika ezberdinak.



SESTAO

Begoñako Andra Mari

BIDEZKO MERKATARITZA

Iniziatiba berri batekin hasi gara, formakuntza eta tailerrak ematera datozen pertsona orori Bidezko Merkataritzako produktuez osatutako saskia emango zaie. Horretaz gain, irakasleen hamaiketakoetan beti daude Bidezko Merkataritzako produktuak, euren kontsumoa egunerokotasunean murgiltzeko.



BESTE EKINTZAK

Dirua biltzeko bi zozketa ezberdin egin ditugu. Bietan gauza ezberdinak zozketatuz. HH-n ikasgela bakoitzeko kamiseta bat eta LH eta DBH-n bidezko merkataritzako produktuekin sortutako 3 otar.



ZARAUTZ

La Salle


PROYDE-PROEGA KANPAINA

Martxoaren lehen hamostaldian egin genuen. Proega Astea (Togo): martxoak 5-9 eta Proega kanpaina, sentsibilizazio kanpaina: martxoak 12-16.



TANDANACUI ETA JENDE XUMEA TALDEAK

Tandanacui taldea martxan dugu ikastetxean: urtarriletik ekainera, ostiraletan DBH 4ko 6 gaztek osatzen dute taldea. Astean behin, ostiral arratsaldetan biltzen dira. Eskolako kanpainetan lagundu dute eta Izartxoko begirale esperientzia ere izan dute maiatzean Jende Xumea Gipuzkoa: 2018-2019tik martxan zegoen taldearekin jarraitu dugu. Hilean behin, larunbat goizetan elkartu izan dira. Udan Granadako esperientzia bizitu zuten.



ZARAUTZ

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Bidezko Merkataritzako denda herriko plazan urritik abendura, hileko larunbat batean ipintzen dugu. Bidezko Merkataritzako denda eskolaren barrenean ostiraletan jartzen dugu, urritik aurrera.



BESTE EKINTZAK

DBH3 mailan eta LHko mailetan: Aterpe, Caritas, Emaus, Aesleme, Elikagaien bankua, Aspanogi, Zaporeak, eta sareko obra diren Elkarbanatuz eta Artizarrekin koordinazioan aritu gara urtean zehar. Aurretik aipatutakoekin SEIN proiektuak aurrera eramaten ditugu. Esperientzia horietaz baliatzen gara Justizia eta Bakearen asteko ekintzak egiteko, bestalde eskolako proiektuak aberasteko erakunde ezberdinetako aditu eta gurasoen partaidetza bultzatzen saiatzen gara. Orokorrean, zailtasunik gabe aurrera eraman dira aipatutako ekintzak, harremanetan jarri ziren bai ikasleak, irakasleak eta gurasoak eta oso ondo txertatu dira ekintza guztiak eskolako jardueretan. Ekintza aberasgarriak izan dira ikasleentzat eta eskolarentzat.



ZUMARRAGA

La Salle Legazpi

Gure inguruan, aurten, ez dira beste urteetan antolatzen ziren ekintzak antolatu, Hare Haizeak Sahararen aldeko karabanarako elikagaien bilketa, adibidez. Ezta ere, Arco Iris antzerki taldeak urtero prestatzen ohi zuen antzezlanak ez dute antolatu, pandemiarengatik; ondorioz, bigarren urtez, hortik ateratzen zen diruaren zati bat PROEGA proiektuarentzat izango zena, ez dugu jaso.

Baina saiatu gara eskola barruan sustatzen direnak mantentzen:

- Gabonetako postalen kanpaina aurrera eraman da.
- Eskolako Guraso Elkartearekin batera martxoko kanpaina burutu da.
- Iaz bezala, Pastoral taldeko kide batek SMH (Salvamento Marítimo Humanitario) eta Aita Mari itsasontziarekin kolaboratzen duenez, ontziak egindako erreskateen berri eman da puntualki, batez ere DBHko ikasleen zenbait saiotan.
- Hala ere, pandemiarengatik ere, urtero La Salle astean, jartzen genuen Bidezko Merkataritzako dendatxoa ez dugu jartzerik izan.

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Urtero bezala, kanpainaren lehenengo aurkezpena egin genuen Gabonetako postalen salmentarekin. Proiektua aurkezteko, LHko 3. mailako ikasleak gelaz-gela ezin zirenez pasa Togoko proiektua aurkeztera, bideo bat prestatu zuten, eskolako gela guztietan proiektatzeko (aurreko urteko memorian txertatu genuen). Aurten, 2022. urteko kanpainarako gauza bera egin dute (Txadeko kanpainarako bideoa txertatu dugu memoria honetan).

Togo kanpaina martxoaren 8tik 12ra izan zen. Beste urteetan bezala, goizeko gogoetak eta tutoretza-saioetan landu da, dirua jasotzeko sobretxoak banatu dira eta aste horretan zehar eta hurrengoan jaso dira.



ZUMARRAGA

La Salle Legazpi

BESTE EKINTZAK

- DBH 3. mailako ikasleekin, Biologiako ikasgaiaren barruan, elikagaiak kontserbatzeko teknikak landu dira, ahalik eta elikagai gutxien botatzeko helburuarekin, jateko nahikorik ez dutenak gogoan izanik.
- LHko ikasleen maila desberdinekin kultura desberdinen ohiturak ezagutzeko saioak ere egin dira.
- Urtarrilaren 29ean bakearen eguna ospatu zen. Usoak prestatu eskolako leiho guztietan jartzeko eta, pandemiak eraginda, distantzia mantenduta, patio osoa okupatuz “Jerusalema” kantarekin dantza egin genuen eskolako ikasle irakasle eta bestelako langileok elkarrekin.



7 TANDANACUI

Taldeak

La Salle Ikastetxeetako 14 eta 20 urte bitarteko gazteek osatzen dituzte talde hauek. Aldizka elkartzen dira Garapenerako Lankidetzaren inguruko gaien gainean gogoeta egin eta jarduera ugariak burutzeko. Hezkuntza elkarteen sentsibilizazioan jarduten dute, horretarako kanpaina solidarioetan parte hartuz, informazio panelak jarritz eta ekitaldi solidarioak burutuz, hala nola, merkatu solidarioa, bidezko merkataritzako produktuen salmenta, bizkotxo solidarioaren eguna edo Elikagaien Bankuen laguntza. Aurtengo jarduerak murriztuak izan dira pandemiagatik.

Tandanacui taldeak jardunean dira, Eibarren, Bilbon, eta Zarautzen. Eta jarduteko asmoa dute Donostian, Sestaon eta Irunen.



8

UDAKO BOLUNTARIOTZA

Helduak

Udako Helduen boluntariotza

Pandemiagatik bertan behera gelditu ziren boluntariotza-proiektuak, eta Proegatik ez genuen deialdirik egin. Dena den harremanak mantendu genituen hego globaleko partekideekin, Boli Kostakoekin, Argentinako, Boliviako eta Kolonbiakoekin.



8


UDAKO BOLUNTARIOTZA

Jende Xumea

Jende Xumea taldeek, Gipuzkoakoak eta Zaragozakoak, urtean zehar talde bezala jarraitu dutenak, hegoaldera joaterik ez, eta auzo-lan proiektu banatan parte hartu zuten.

Gipuzkoako taldea, Eibar-Zarautz, 7 gaztez eta 2 laguntzailez osatua Granadan izan ziren bi astetan, abuztuaren 1etik 14ra, Almanjáyar auzoan. “Asociación Almanjáyar En Familia – ALFA–“ erakundearen baitan jardun ziren beren zerbitzua eskaintzen.

Ezin ukatu auzoko errealitatearekin topo egitea gogorra ez zitzaiela izan. Hala ere, harrera oso ona izan zuten.



8

UDAKO BOLUNTARIOTZA

Jende Xumea

Berehala konturatu ziren beren zerbitzua ez zela zer bait antolatzea edo gauza berriak diseinatzea, EGOTEA baizik:

-3 eta 16 urte bitarteko neska-mutilekin egotea, beraiekin ikasten eta jolasten.

-Ekonomatoan egotea, auzoko jendeari oinarrizko produktuak eskainiz salmenta-prezio egokietan.

-Zentroko zaharrenekin egotea, 70-85 adinekoekin, arratsaldea haiekin pasatuz, berriketan, margotzen, Bingoan jokatzeko, informatikan...

Konturatu gara, diote, bakoitzaren presentziak daukan inportantzia, ez egiteak, baizik eta albokoari sentiaraztea ikusten dugula eta interesatzen zaigula.

Ikasi egin dugu. Asko ikasi dugu. Zentroko hezitzaile, animatzaile, langile, erabiltzaileekiko harridura handituz joan da egunak pasa ahala, bereziki, Juan Carlos, auzoko parrokoekikoa, ALFA erakundearen “alma mater” dena. ALFAk erakutsi digu “familian” bizitzearen balioa.



8


UDAKO BOLUNTARIOTZA

Jende Xumea

Zaragozako taldea, 3 gazte eta 2 laguntzaile, Bartzelonan izan ziren uztailaren 10etaik 17ra arte. Taldea, 10eko zena, oso murriztua gelditu zen pandemia eta beste zenbait arrazoiengatik.

Bon Pastor auzoko CEL izeneko sozio-hezkuntza erakundearen Casal batean eskaini zuten beren zerbitzua, goizetan haur eta nerabeekin. Arratsaldetan, berriz, beste zenbait erakunde ezagutzen ibili ziren: San Egidio, Fundació Comtal eta Migra Estudio (jesuiten fundazioa).


Pozik geratu ziren egindakoarekin, elkarteen aldetik izandako harreragatik eta beraien arteko bizikidetzagatik.



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzaz



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak

LANKIDETZA PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

	IZENBURUA	HERRIALDEA	Diru-laguntza eman duen erakundea	GASTUAK	GUZTIRA
1	Emakumeen, nesken eta nerabeen aurkako bortizkeriaren prebentziorako hezkuntza proposamena San Markoseko herri eskoletan, Guatemala.	Guatemala	Bizkaiko Foru Aldundia	55.967,93 €	55.967,93 €
2	Haur eta gazte errefuxiatu siriarren eta libanoar zaugarrien hezkuntzarako, garapenerako eta integrazioarako sarbidea erraztea eta hobetzea.	Libano	Caritas Bizkaia	21.400,00 €	21.400,00 €
3	Akwabako kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta laboralean laguntzea.	Boli Kosta	Zumarragako Udala	2.000,00 €	39.177,70 €
Irungo Udala			9.550,00 €		
Zarauzko Udala			12.240,00 €		
Caritas Irun			15.387,70 €		
4	Landa eremuko maya q 'eqchi' emakumeen ahalduntze ekonomiko eta politikoa Zona Reinan, Quiché II. Fasea.	Guatemala	Donostiako Udala	34.734,93 €	34.734,93 €
5	Togoko iparraldeko haurrentzako kalitatezko erabateko lehen hezkuntzako programa indartzea, Les Savannes Eskualdeko Landa Eskolen Sareari lagunduz.	Togo	Irungo Udala	19.840,00 €	19.840,00 €
6	Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoko tresneria eguneratuz.	Txad	Zarauzko Udala	12.540,43 €	20.540,43 €
Zumarragako Udala			8.000,00 €		
7	Inklusioa eta partehartzea duen eskola eraikiz	Argentina	Eibarko Udala	11.571,80 €	11.571,80 €
8	Elektrizitate tailerra Kelo eta N'Djamenako lanbide heziketa ikastetxeetan.	Txad	Hondarribiko Udala	6.029,48 €	6.029,48 €
9	EpD. Etorkizuna eraikitzen dugu: Hezkuntza gure tresna	Zarautz	Zarauzko Udala	2.600,00 €	2.600,00 €
10	EpD. Kontsumo ohitura arduratsuak sustatzen Eibarren	Eibar	Eibarko Udala	1.100,00 €	1.100,00 €
	GUZTIRA			212.962,27 €	212.962,27 €

9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetza

LANKIDETZA PROIEKTUAK PROEGAREN FUNTSEKIN BAKARRIK

	IZENBURUA	HERRIALDEA	GASTUAK
11	Kalitatezko bigarren mailako hezkuntza Pildestiko Lanbide Eskola	Errumania	10.000,00 €
12	La Salleko Lanbide Heziketako zentroaren funtzionamendurako laguntza, Ginea Conakryn.	Ginea Konakry	5.000,00 €
13	Hegoafrikako Rustenburg meatze-eskualdeko kokalekuetan haur-hezkuntza sustatzea.	Hegoafrika	4.000,00 €
14	Kamerungo hego-ekialdeko Baka (pigmeoak) populazioaren oinarritzko eskolaratzea.	Kamerun	4.000,00 €
15	Kiri eta Kongoussi-ko ikasleei laguntzea.	Burkina Faso	3.000,00 €
	GUZTIRA		26.000,00 €

	Lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegaren funtsekin	Lankidetza proiektuak Proegaren funtsekin bakarrik	GUZTIRA
GUZTIRA	212.962,27 €	26.000,00 €	238.962,27 €

Hara, 2021 urtean Proyde-Proega Fundazioak aurrera eraman dituen lankidetza-proiektuak. Askok diru-laguntza publikoak jaso dituzte, besteak diru-laguntza pribatuekin eta Proyde-Proega Fundazioaren beraren funtsekin finantzatu dira. Tauletan agertzen diren 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 13 eta 14 proiektuen deskribapena dago jarraian.



Herrialdea: Guatemala

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Donostiako Udala

Proiektua: Landa eremuko maya q 'eqchi' emakumeen ahalduntze ekonomiko eta politikoa Zona Reina-n, Quiché II. Fasea



Proyde-Proegak urteak daramatza Guatemalako Prodesa elkartearen hezkuntza proiektuetan laguntzen. Prodesak herrialdeko biztanleria indigenekin egiten du lan, batez ere.


Proiektua bost landa-komunitatetan eramango da aurrera. Zona Reina izeneko eskualdean aurkitzen dira.

Zona Reinaren ezaugarri nagusiak pobrezia-maila handiak eta bazterketa dira, nekazari maia q 'eqchi' gehiengo den biztanleriari eragiten diotenak. Egoera horrek batez ere emakumeei eragiten die. Proiektu honek helburu hau du: Talde berri bat ahalduntzeko ahaleginekin jarraitzea emakume nekazarien lana sendotuz, autonomia ekonomikorako eta partaidetzarako gaitasunak izan ditzaten, q 'eqchi' kultura maiaren balioak eta praktikak kontuan hartuz. Asmo hau bi alderdi osagarriren bidez lortuko da: bata, nekazaritza-ekoizpen ekologikorako prestakuntza-prozesu bat izango da, elikadura-subiranotasunaren eta maien kulturaren ikuspegiz. Honek hobeagotuko du emakumeen eta familien egoera ekonomikoa. Bi, prestakuntza politiko prozesu batek erraztuko du emakume-lider komunitario talde batek eragin politikorako eta haien eskakizunetarako gaitasunak izatea. Bi prozesu horiek nagusiki q'eqchi' maien hizkuntzan egingo dira.

2000 urtetik aurrera La Salleko Anaien Elkarteak, Proyde-Proega eta Fundación La Sallerekin batera, bere lehentasunen artean Malvinas Argentinas herriari; Argentinako Cordoba Probintzian, hezkuntza zentro bat sortu eta garatzea da, herriko nerabe eta gazteen bigarren mailako hezkuntza bermatzeko.

Gaur egun, herrialdeak duen murrizketarik handienetako bat eskola-azpiegiturarena da. Herri honetan Bigarren Mailako bi ikastetxe publiko daude, baina ez zegoen bat bera ere proiektu hau garatzen den Malvinaseko hirugarren sektorean. Sektoreko familiek beren seme-alabentzako maila honetako ikastetxea eskatzen zuten.

Proiektu honek jarraipena ematen die Eibarko Udalak orain arte finantzatutakoei, eta Bigarren Hezkuntza hau eraikitzeko zortzigarren fasea da; Bigarren Hezkuntzako Hector Valdivielso ikastetxe honetan elektromekanika eta elikadura espezialitateak irakasten dira. Oraingo finantzaketa proiektu honetan, alde batetik, 6 ikasgela eta bainugela sorta eraikitzeko diru-ekarpena eskatu izan da eskola-erakundearen erantzun ahal izateko. Bestetik, jarduera neutralik ez dagoenez ikastetxeak proposamen pedagogiko kooperatiboak eta diziplinartekoak eskaintzen ditu gazteen partaidetza suspertuz.



Herrialdea: Argentina

Diru laguntza ematen duen erakundea: Eibarko Udala


Proiektua: Inklusioa eta parte hartzea duen eskola eraikiz



Irungo Udalaren finantzaketari esker, arazo larri bati aurre egiten dion proiektu honekin jarraitzen dugu: Sabanetako eskualdean (Les Savannes) hezkuntza-baliabideen urritasunari.

Aurten, bi norabidetan egin da ahalegina: irakasleen etengabeko formazio-jarduerak: 10 maisu-maistren formazioa Dapaong-en, praktikak Lehen Hezkuntzako eskoletan, haurren eskubideei buruzko gaikuntza.

Eskolako kantinen programako jarduerak: oinarrizko elikagaiak lortzea, garraiatzea eta banatzea, eta sareko kantinen funtzionamendua.



Herrialdea: Togo

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Irungo Udala

Proiektua: Togoko iparraldeko

haurrentzako kalitatezko erabateko Lehen

Hezkuntzako programa indartzea, Les

Savannes Eskualdeko Landa Eskolen

Sareari lagunduz



Herrialdea: Libano

Diru laguntza ematen duen entitatea:

Caritas Bizkaia


Proiektua: Haur eta gazte errefuxiatu siriarr eta libanoar zaurgarrien hezkuntzarako, garapenerako eta integraziorako sarbidea erraztea eta hobetzea

Proegak inplikaturik jarraitzen du Fratelli proiektuarekin, Salletar eta Maristen kongregazioek 2016. urtean Libanon abian jarri zuten proiektuarekin, alegia. Sozio-hezkuntzako proiektua da gerratik ihes egin eta Libanora etorritako siriarr eta irakiar neska-mutil, gazte eta errefuxiatuen alde.

Programak aurrera jarraitzen du komunitate siriarra eta irakiarra kokatuta dauden lekuetan. Lehena, Libanoko hegoaldeko eskualdean, Rmeileh-n. Komunitate irakiarra Beirut hiriburutik iparraldera dauden auzoetan Bourj Hammoud auzoan.



Fotógrafo:



Herrialdea: Txad

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Zarauzko eta Zumarragako Udala

Proiektua: Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoko tresneria eguneratuz

Proiektu honi esker, ikasleak prestatzeko erabiltzen diren ekipoak eta teknikak berrituko dira, eta beren sektoreetan erabiltzen diren puntako teknologiak ezagutuko dituzte, zaharkitzea gainditzeko eta bezeroen eta teknikariak biltzeko enpresa potentzialen konfiantza ez galtzeko. Bestalde, CTAP zentro teknikoa laguntzeko eta berritzeko proiektu honek, gainera, sozio-hezkuntza-lana ondo egiteko oztopo izan daitezkeen beste inguruabar batzuei heldu nahi die. CTAPek, horretarako, proiektu honek eskaintzen duen aukera aprobetxatzen du, epe luzerako autosufizientzia eta iraunkortasun plan bat garatuz. Plan horrek, bere sektore profesional teknikoari dagozkion diru-sarrerak sortzen dituzten jardueren bidez, kanpoarekiko mendekotasuna pixkanaka ezabatzea ahalbidetuko dio. Horrela, gazte zaurgarriak lan-aukera berrietarako prestatu ahal izango ditu eta hazten doan enpresa-sareari gaitutako teknikari profesionalak eskaini ahal izango dizkio.



Barnetegi lizeo teknikoko Keloko St. Joseph eta N'Djamenako Etengabeko Formazio Zentroak (CTAP) enplegua lortzera bideratutako hezkuntza arautua ematen dute, bereziki baliabide ekonomiko gutxiko gazteei zuzendua da. Proiektu honen helburua da genero-kalitate eta -ekitateko bigarren mailako hezkuntza-estaldura ematea, bi zentroetan lanbide-heziketako tailerren bidez. Proposamenak bi zentroen artean 1.400 pertsona inguru jasoko ditu, eta 12 hilabeteren buruan gauzatuko da. Horretarako, honako hau bilatuko da:

- Bi zentroetako hezkuntzaren kalitatea handitzea, gazteen, batez ere nesken, lan-merkatura bideratutako prestakuntza egokirako tailerrekin.
- Emakumeek lan-merkatuan sartzeko aukera handiagoak eta baldintza ekonomiko eta sozial hobekuntza izatea.


Bi zentroetan elektronikako eta automata programagarrietako ekipamendua berrituko da.

Herrialdea: Txad


Diru laguntza ematen duen erakundea:

Hondarribiko Udala

Proiektua: Elektrizitate tailerra Kelo eta N'Djamenako lanbide heziketa ikastetxeetan




Proiektuak babesa ematen dio Errumaniako Pildești herrian dagoen "La Salleko San Joan Bautista Lizeo Tekniko"an kalitatezko hezkuntza-finkatzeari, baliabide urriko familietako, gutxienez, 140 ikasleen formazioa bideratuz, batxilergo tekniko baten oinarriak emanez, ikasleen espezializaziora zuzendua, horrela lanerako prestatuz edo goi-mailako hezkuntzan sartzeko.



Herrialdea: Errumania

Proega beraren funtsak

Proiektua: Kalitatezko bigarren mailako hezkuntza Pildești Lanbide Eskolan



Herrialdea: Boli Kosta

Diru laguntza ematen duen

erakundea: Zumarragako, Irungo eta Zarauzko Udalak eta Caritas Irun


Proiektua: Akwabako kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta laborean laguntzea



Proyde-Proega Fundazioak Akwaba Harrera-etxearen funtzionamendua sostengatzen jarraitzen du. Bere funtsekin eta zenbait erakunderen ekarpenekin, aurtun Zumarraga, Irun, eta Zarauzko udaletxeen eta Irungo Caritasen ekarpenekin, Harrera-etxearen funtzionamendu gastuen zati bat bere gain hartzen du eta azpiegituren hobekuntzan ere laguntzen du zentroak zerbitzu hobea eskaini dezan.

Akwaba Etxeak kalean jasotako mutilei eta auzoan eskolatu gabe dauden neska-mutilei, gizarte baztertzeko arriskuan direnei, aholku eraginkorra, eskolatzeko egokia eta bizi-egitasmoa eskaintzen die, gizarteratzea eta familian integratzea ahalbideratuz. Hiru-lau urtez egon ohi dira egoitzan. Urte horietan familia berriro itzultzea prestatzen da. Akwaba Harrera-etxeak sare moduan lan egiten jarraitzen du Abidjaneko haurren alde diharduten beste erakundeekin, arrisku egoeren prebentzioan.





Baka etnia (pigmeoak) Afrikako etnia bat da, gaur egun Kamerun, Ekuatore Ginea eta Gabonen dauden oihan birjin eremuetan finkatuta dagoena.

Gobernuaren presiopean, bukatu dute euren kanpamenduak ezarriz Bulu, Fang edo Zaman etniek okupatzen dituzten herri txikien inguruan.

Bere ezaugarri eta tradizioengatik, talde honek arreta espezializatua behar du kalitatezko hezkuntza jaso ahal izan dezaten.

Proyde-Proegaren lankidetzak, baka neska-mutilak eskolatzeaz gain, haien autoestimua sendotzen laguntzen du, hezkuntza inklusiboaren bidez, gizarteratzen pixkanaka lagunduko diena.

Herrialdea: Kamerun

Proega beraren funtsak

Proiektua: Kamerungo hego-ekialdeko Baka (pigmeoak) populazioaren oinarritzko eskolaratzea




Proiektua Rustenburg meatze-eskualdean garatzen da etorkin-populazioarekin, batez ere Mozambiketiko etorritakoekin. Zenbait erakunderen diru-laguntza jaso du, beraien artean Proegarena.

Proiektuak 1 eta 6 urte bitarteko 200 haur baino gehiagori eta haien familiei egiten die mesede.

Proiektuak urtero 9 hartzaindegiei lagundu nahi die, eskola-material eta didaktikoa eskainiz, eta altzari egokiak ere. Hartzaindegietako 200 haur baino gehiagoren elikadura ere zainduko da, gosaria eta bazkaria egunero emanez.

Aldi berean, proiektuak zenbait osasun-zentro txikiei laguntzen die familien osasuna zaintzeko. Horretarako proiektuak haurren zaintza bermatzeko botikak ematen ditu. Errefortzu berezia jarri izan zaio azken urtean COVID pandemiarekin lotutako arretari eta prebentzioari. Azkenik, irakasleentzako prestakuntza-tailerrak egiten dira: teknika pedagogikoetan eta haurren eskubideei buruz.



Herrialdea: Hegoafrika

Proega beraren funtsak

Proiektua: Hegoafrikako Rustenburg meatze-eskualdeko kokalekuetan haur-hezkuntza sustatzea




10 MEMORIA EKONOMIKOA


Proyde-Proega 2021

FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

- Erakunde publikoak: 182.767,28€
- Proega beraren funtsak: 114.120,03€



PROEGA BERAREN FUNTSEN JATORRIA




- Sentsibilizazio kanpainak: 43.098,31€
- Gabonetako postalak: 6.732,95€
- Erakunde pribatuak: 37.400,00€
- Bazkideak eta dohaintzak: 26.888,77€

10 TXOSTEN EKONOMIKOA


Proyde-Proega 2021

GASTUEN BANAKETA

- Sentsibilizazioa eta boluntariorza: 5.633,73€
- Funtzionamendua: 37.131,46€
- Proiektuen finantzaketa: 238.962,27€



FINANTZATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA



- Afrika
- Amerika
- Asia
- Europa

11

ESK

Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Proyde-Proega Fundazioak garapen global solidarioak eskatzen duen lankidetzaren ekonomikorako ildo serio eta eraginkorra eskaintzen die enpresa eta erakundeei. Proiektuak finantzatzeko egiazko globalizazioa burutzen lagundu egiten du, garapen solidarioaren bitartez.

Proyde-Proegari laguntzen jarraitzen dioten enpresa gehienek anonimatuan segitzea eskatzen dute.



12 ERAGIN POLITIKOA

Proyde-Proega 2021

Azken urte honetan esku hartu dugu gutxi garatutako lurraldeen pobrezia eragiten duten egiturak aldatzeko Euskadin eta Estatu mailan egiten diren ekitaldietan. Lan hau partaide garen koordinakundeetako batzordeen bitartez egin ohi dugu. Azpimarratzekoa Proyde-Proegaren partaidetza Euskadiko GGKEN Koordinakundeak antolatzen duen Jardunaldian, Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean, Donostiako Pobrezia 0 Plataforman eta Zarauzko Solidaritate Koordinakundean.

“Lotu zaitez justiziaren alde” taldean integratutako “Planeta zaindu pobreziaren aurka egiteko” REDESen kanpainan parte hartu dugu.

Aurten jarduerak murriztu egin dira pandemiaren eraginez.



13 HARREMANAK

Beste GGKE batzuekin

Proyde-Proega Fundazioak solidaritate-sare hauetan hartzen du parte:

- ✓ RELEM-eko (Europa, Ekialde Hurbila eta Egipto-Sudan) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean
- ✓ ARLEP-eko (Espainia eta Portugal) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean
- ✓ Euskadiko GGKEen Koordinakundean
- ✓ Redes izeneko sarearen Koordinakundean (Garapen Solidariarako Erakundearen Sarea), bereziki Bizkaian
- ✓ Lankidetzeta eta Garapenerako zenbait udal plataformetan (Donostia – Eibar – Zarautz).
- ✓ Euskadiko Pobrezia Zeron
- ✓ Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean
- ✓ Lotu zaitetz justiziaren alde plataforman (Caritas, Manos Unidas, Justizia eta Bakea, Confer eta Redes
- ✓ Lankidetzeta-hitzarmenak eginak ditu zenbait asoziazio eta GGKEekin (Proyde, Elkarbanatuz, Gipuzkoako Caritas, Bizkaiko Caritas)

14 PUBLIKAZIOAK

Sustatu 26

Apirilean argitaratu zen Sustatu triptikoaren 26. zk, euskaraz eta gaztelaniaz. Ale gutxi batzuk bakarrik inprimatu genituen, hizkuntza bakoitzean. Izan ere, bidalketa Gipuzkoa eta Bizkaiko La Salle Ikastetxeetako familiei eta Fundazioko boluntario, lankide eta partaideei web orriaren bitartez egiten da.

Triptikoan 2021ean finantzatutako garapenerako lankidetza proiektuen taula ageri da eta urteko ekonomia-txostena. Zenbait garapen-proiektuen eta larrialdi-proiektuen informazioa ematen da. Helduen udako boluntarioritza-proiektuena ezin eman, ezta "Jende Xume" gazte taldeena ere, pandemia zela-eta dena bertan behera gelditu baitzen. Dena den egin zuten ibilbidearen berri ematen da. 2020-2021eko sentsibilizazio kanpainaren berri ere ematen da. Gainera, bazkide egin edo diru-ekarpen bat egiteko bolante bat ere badakar.

Triptikoa urteko txostenaren (memoriaren) laburpen bat da. Bere xedea gure GGKEaren bitartez egiten diren Garapenerako Lankidetza proiektu eta jarduerak ezagutzera ematea da La Salle Ikastetxeetako ikasleen familiei eta Proyde-Proega Fundazioaren partaide eta adiskideei, eta horrela herrialde pobretuez sentsibilizatzea.

La Salle

TXOSTENA 2020

PROYDE PROEGA

SUSTATU 26

Tohi xume aihotan jende xume aihob gauza xume aihob mundua aida dezake.

www.proyde-proega.org

PK_041_004864 ECHINOSTIA

Garapenerako gaitasuna hau san da: "Tortura gutxienezko hezkuntza inklusibo, bidarko eta kalitatekoaren alda". Helduen txostenak konturatu da pobrezien eta horren ondorio suntsitzaileen aurka borrokatuko eta gaitasun biderkako bat sortuko.

Baina, azken urteetan aurrepenak egin diren arren, 265 milioi mediar milioi gehiagok eskolatu gabe jarraitzen du eta 10etik 6a eta 6a ondorio eraguzten irakurten eta matematikan.

Garapen Inklusiboaren Helburu (GHI) aldi-bordien inguruko lanarekin jarraituz, gure arazo erakunde "solidaritate" GHI 4ri buruz gaitasun egitura bideratu nahi izan dute kasurte honetako kanpaina. Horren heburu nagusia izanik 2020ara urte hezkuntza inklusibo, bidarko eta kalitateko berritza eta biziak osatu eta pertsona gaitasunak ikurketa aukerak sortuz. Izan ere, herriak inaurkora erakitzeko, denok balio dugu.

UDAKO BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK

Pandemiagatik ezin izan ziren gauzatu. Hala ere, emandako urratsak jarraitzea nahi dugu.

Helduen boluntarioritza taldeak

2018ko abenduaren araberan osatu ziren bi boluntario-talde:

- 5 boluntarioz osatutako taldea Boliviako Trinidad-Beni proiektura joateko.
- Eta 3ko beste talde bat Abadengo kaleko haurren Alkoba proiekturako, Boli Koztan, 2020ko azararen 15ean egin genituen formazio-erretzikuratzako lehen topaketan, San Asuzenon. Eta hezagorri-koartelak ateratu izan arren, martxoan pandemiagatik dena ezabatu behar izan genuen. Lortu genuen, beharrez, ondandutako bilaketan kontuz berrokurutzara.

Jende Xumea taldeak

Bilboko eta Gipuzkoako (Eibar-Zarauz) gaste-taldeek bi urte zeramatzaten talde gisa baitzen, 2020ko udako boluntarioritza-proiektuan behera. Nona joango ziren, proiektuarekin lekuak ere bideratuta zuden: Argentinan (Mahirnas Argentinak) eta Boliviako (Santa Cruz de la Sierra). Udako proiektua bertan behera utzi arren taldeak jarraitzen duten ekartzen.

HEZKUNTZA gure tresna

TXOSTEN EKONOMIKOIA 2020

FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

ERERKURTUO PROIEKTUEN JATORRIA

GASTUEN BANAKETA

FINANTZIATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA

BAZKIDEA EGIN EDU DOHAINTZA EMATEKO

Herri-azalpenak: IAN, _____
Herri-ko: _____ Telefono: _____
PK: _____ Herri: _____ Probintzia: _____
Ondarizko modak:
 Buzkide/boluntario: KUTXAN: ESOZ 2096 5010 34 1041883279
 Buzkide: 02259
 Buzkide-herri-azalpenak: Herri-azalpenak: _____
Titulareren IAN: _____ Herri: _____
Titulareren IAN: _____ Herri: _____
Kontu-azalpena: _____ Herri: _____

Kontu: _____

Heldu jarraitu izan eta 2020ko txostenaren informazioa proiektuarekin jarraitzen duzue. Informazioa ematen dugun bitartean, proiektuarekin jarraitzen duzue. Informazioa ematen dugun bitartean, proiektuarekin jarraitzen duzue. Informazioa ematen dugun bitartean, proiektuarekin jarraitzen duzue.

Heldu jarraitu izan eta 2020ko txostenaren informazioa proiektuarekin jarraitzen duzue. Informazioa ematen dugun bitartean, proiektuarekin jarraitzen duzue. Informazioa ematen dugun bitartean, proiektuarekin jarraitzen duzue.

14 PUBLIKAZIOAK

Gabonetako postalak



Urteroko legez, Gabonetako Postalen Kanpaina egiten dugu. Horretarako hainbat marrazki aukeratu (gure ikastetxeetan dauden irakasle artistenak) eta salmenta bideratzen dugu.

Eskola bakoitzari eskaintza egiten zaio, bakoitzetik kantitate zehatza aukeratu dezan.



Hau honela, aurten, 5.755 postal saldu ditugu.

Ezkerraldean ikus daitezke aukeratutakoak, koloretsuak eta esanguratsuak.



Bestalde, Proegako bazkide direnei ere bidaltzen zaie postal bana Gabonak zoriontzeko asmotan.

